

Bero-beroan

Iruña-Veleia dela-eta kereila

AUZIA SEKRETUPEAN dagoenez, kereila noren aurka jarri duten ez du jakinarazi Lorena Lopez de Lacalle Arabako Kultura ahaldunak. Dena den, Eliseo Gil eta Amelia Baldeonen izenak errepikatu dituzte hedabideek. Biak kargutik kenduak ditu Foru Aldundiak. Bestalde, Eliseo Gilen Lurmen SM enpresaren aurka-ko zigor espedientea abiarazi dute.

Topagunea hausnarrean

EUSKARA Elkarteen Federazioak adierazi du hiru urtez barne-hausnarketa egingo dutela, atzera begira-

tu eta aurrera begirako erronkak zehazteko. Dena den, Topagunearen helburua euskaldunen hizkuntza komunitatea trinkotzea eta zabaltzea izango da. Euskara elkarteen jarduna egituratzen duten bi ardatzak hartuko dira kontuan: erabilera bultzatzea eta sentiberatzearen bidez herritarren eta erakundeen euskararekiko atxikimenduan eragitea.

“Eskualduna” sarean jarri du Susak

ESKUALDUNA astekaria (1887-1944) kontsultatzeko moduan da www.armiarma.com webguneko Euskal Prentsaren Lanak sailean. 3.000 zenbaki inguru argitaratu zituen *Eskualdunak*. Piarres Charri-

ttonen laguntzarekin berreskuratu dira gehienak, Baionako Gotzaitegian baitzeuzkaten artxibatuta.

Xarles Videgain euskaltzain oso

EUSKALTZAIN emeritu izendatu duten Txomi Peillenen hutsunea beteko du Xarles Videgain hizkuntzalari baionarrak. Letretan dokorea, Euskararen Atlasa osatzen dihardu 1985az geroztik. Euskaltzaindiko Atlasgintza lan taldeko arduradun teknikoa da eta Hiztegi Batuko lantaldeko kidea.

Jon Maia eta Xamar

MANU Robles-Arangiz Institutuak Jon Maiak eta Xamarrek ELAko egoitzetan emandako hitzaldiak osorik jaso ditu paperean. Maiak *Riomundo* liburua hartu du abiapuntu. Xamarrek euskararen eta euskaldunen historia miatu du. *Euskalgintza sindikalgintzan txertatu (V)* liburuxkan datoz bi hitzaldiak.

TALAIAN

Aberastasun gehiago, pobrezia gehiago

Pobrezia eta bazterketa soziala Euskal Herrian ezarrita daude, nahiz eta hamabi urteko hazkunde ekonomikoa izan. Horrela, mantentze pobrezia-elikadura, etxebizitza, jantziak, oinetakoak eta bestelako oinarriko beharrak ziurtatzeko nahikoa baliabide ekonomiko ez izatea— biztanleen %4,1i eragin zion 2008an EAEn, hau da, 88.643 pertsonari. 1996ko %4,0tik 2008ko %4,1era igaro da. Hori ondoriozta daiteke ELAk egindako txostenean. Egungo krisiarekin, pobrezia eta bazterketa soziala larriagotu egingo dira. Inkestak EAEn eragiten dion arren, funtsezko datuak ez dira aldatuko Euskal Herri osoari dagokionez. Egoera horrek gure herriko gobernuen politika ekonomiko, sozial eta kapitalistak islatzen ditu. Planetako egoerak ere tesi hau erakusten du: aberastasuna handia, pobrezia are eta handiagoa. Hain zuzen, planetako 500 pertsona aberatsenen errenta handiagoa da 416 milioi pertsona pobreenen sarrerak baino. 2008an 963 milioi lagunek sufritu dute gosea munduan, 2005eko 848 milioirekin konparatuz.

Eredu ekonomiko kapitalista eta basatiaren ondorio den egoeraren aurrean, herri mugimendu antikapitalistak antzematen hasi dira. Baita Euskal Herrian ere. Aste honetan bertan, larunbatean, Herria Abian plataformak mobilizazioak hasi ditu kapitalista ez den beste eredu ekonomiko eta sozialaren alde. Plataformaren leloa da *Krisiaren aurrean, Euskal Herriak aldaketa soziala*. Sindikatuak ere, nahiz eta bananduta, pobrezia, bazterketaren eta prekarietatearen kontra mobilizatzen ari dira. Egoera horrek Bankaren eta enpresa handien etekin milioioidunekin kontrastatzen du, eta beraiek izandako galeren sozializazioarekin, gure zergen kargu geratu baitira.

Juan Mari Arregi

BAHEA

Isabel Artieda, Igor Arroyo, Txomin Gonzalez eta Expe Iriarte, LABeko ordezkariak
Berrian esanak: “Euskarabidearen politika marketin politika da, hutsa, eduki zehatzik gabekoa (...) UPNren aurreko Gobernuak Pegenante buldozer-ekin euskarari erasotzeko eta jazartzeko gauzaturiko politikak behea jo zuten. Haren diskurtso eta irudien zakarkeria jasangaitza zen. Halaber, epaitegiek hainbat alditan guztiz zuzendu zuten. Hortaz, beharrezkoa zen zerbait aldatzea dena berdin gera zedin, eta horrela norabide berebean ibiltzen jarraitzeko. Borondate horretatik sortu zen Euskarabidea, eta lan horretarako bilatu zituzten egun erakunde horretan zuzendaritza postuetan daudenak”.

“Biolentziaren atzean dagoen ideologia deslegitimatua”

EZETZ, ez dela hemen iraultza demokratikorik egon, espainiar konstituzionalismoak hedabideetan behin eta berriz agertzen duen bezala; dagoen gobernu aldaketa ez dela oinarritzen gizarte aldaketa eta errealitate berri baten guraritik, errealitatea desitsuratzeko egindako amarrukeria politikotik baizik (eta zeharka bada ere, abertzaletasunak akordioetara iristeko duen ezintasunetik ere bai). PSE-EEk eta PPK botuen %43 dute, abertzale bozkatu zutenek botuen %57 (baliogabeak barne). Ez ditut irakurleak jadanik ezagutzen dituen argudioak errepikatuko, baina berriz ere argi uztea komeni da. Gera dadila argi idatzia, etorkizunean historiaren interpretazioak bestelako ikuspegi zirrikituak ere izan ditzan. Iñaki Egaña historialariak berriki idatzitako artikulu batean dioen moduan, “dagoeneko begi bistakoa ezkututzen bada, zer gertatuko da bi hamarkada geroago historialaria legealdi honen hastapena interpretatzen hasten denean?”.

“BIOLENTZIAREN atzean dagoen ideologia” deslegitimatuko dela dio PSE-EEko lehendakari Jesus Eguigurenek, gobernu berriaren berrikuntza nagusi gisa. Eta ez zait bururatzen zein ideolo-



giari egiten dion erreferentzia, ideologia abertzaleari ez bada. ETAren totalitarismoaz ere asko hitz egiten da, eta hori ote den ere pentsatu dut, baina hori ez da berez ideologia bat eta baztertu dut. “Biolentziaren atzean” dagoena borrokatu, “biolentziaren munduari” aurre egiteko. Alderdien Legeak ekarritako ezker abertzalearen zukutzearen areagotzeaz ari dela pentsa liteke, baina oraingoan legez kanpoko ezker abertzaleaz gain, beste erakunde batzuk ere ukitzeko, EITB bera esate baterako. Adibidez, tertulietatik Bataunaren munduko iritziak ezabatzen badira, pertsona eta ikuspegi politiko hori kolpatzeaz gain, media bera kolpatzen baita.

IRUÑEKO LIBURUTEGIETAN Gara eta Berria ez hartzeko Yolanda Barcinak emandako agindua ere, finean, deslegitimazioaren upel horretatik

hartutako erabakia da. Ekonomia krisiaren argudioa ezin da baldarragoa izan: ez dago sosik, beraz, Nafarroako eta Estatuko komunikabide garrantzitsuenak bakarrik hartuko dira. Krisiak aurrera jarraituko duela ezagun da eta honen aurrean protektionismoak indartzeko joera duela ere bai. Ez litzateke harritzekoa, beraz, laster Nafarroako liburuak bakarrik erosiko direla iragartzea.

Zorionez, liburutegietako arduradunek protesta egin dute, erabakia liburu munduak babestu behar duen pluralismoaren aurkako neurritzat jotz. Sarko-k 600 milioi euro bideratuko ditu Frantzia krisian dagoen prentsa mundua laguntzeko. Besteak beste, 18 urte egiten duten gazteei urtebetez Frantziako edozein egunkariaren harpidetza ordainduko die bere Gobernuak. Nafarroako euskarazko komunikabideentzat 9.000 euroko —ez da zerorik falta— dirulaguntza dago bideratua Nafarroako Gobernutik. Korrika ospatzeko antolatu nahi zen festa ere debekatu egin zuen iragan larunbatean Iruñeko Udalak. Nagusitasun erabatekoak (UPN-PSN) ematen duen baldarkeria osoz. Hauek argi dute biolentziaren atzean dagoen ideologia zein den. EAEn ikusi behar orain.



gure artean euskaraz

(1909-1996)

Euskaltzale bizkaitarrak

100. urteurrenean

*Canñol, euskal lurraldea
gerriz estutzen dokona;
biar, otol, ene odola
aize-bizfada bizkor;
gure erraren loa
emarazi nai neurek,
zar ta gazte, urte, guraso*

*enda-su kijakalkorran
—burdina matar gori bi-
alkar erantsi azirik,
Eta beñil, gerora,
ene arnasaren galifa
ara ta ona, aspertu bariñ,
ailoko asabak, be pietu nneiz.*

Aita Santi Onaindia



BFA DFB
Baskische Film-
Akademie
Deutscher
Filmverband